

# IZAN KANTUZ



**BAIETZ 26 ORDUZ JARRAIAN EUSKARAZ ABESTU ZALDIBIAN!**

## PRENTSA OHARRA

Kantatzen duen herri bat ez da inoiz hilko kantatzen zuen Negu Gorriak-ek, eta Mikel Laboak esan zigun, besteak beste, kantuz sortu zela, kantuz bizi nahi zuela, kantuz bidaltzen zituela penak ihesi, kantuz eman izan zituela zenbait berri, kantuz aitortzen zituela bekatuak eta kantuz ehorztea eta kantuz oroitzea nahi zuela hiltzen zenean.

Izan ere, kantu batek balio dezake albiste on bat emateko, gerraren berri kontatzeko, maitasuna agertzeko, desamodioaz hitz egiteko, norbaiten jaiotza ospatzeko, norbaiten heriotza goxatzeko...

Azken batean kantua gure izatearen parte da, eta baita gure hizkuntzaren eta kulturaren parte ere.

Kantuak lotzen gaitu gazteak eta ez hain gazteak, emakumeak eta gizonezkoak, munduaren alde batekoak eta besteak...

Kantugintza euskal kulturaren eta hizkuntzaren transmisio-bidea izan da. Hala ikusten dugu guk, bere etorkizuna irabazteko duen herri gisa, belaunaldi arteko transmisio bide garrantzitsuenetako bat izan dela hain zuzen.

Eta horregatik antolatu dugu IZAN KANTUZ herri erronka, ahotsez ahots, txandaz txanda, euskarazko kantuak bata besteari lotuz, munduan orain arte ikusi ez den bezalako herri-erronka.

**2017ko azaroaren 10ean, arratsaldeko 18:00etan hasiko da erronka, eta 26 ordu geroago, azaroaren 11an, arratsaldeko 20:00etan amaituko da** Zaldibiako Herri Antzokian. **26 ordu horietan, kantari arituko gara etengabe,** garai eta era guztietako euskal kanta taularatuz.

**400 abestiko zerrenda** batetik aukeratu ahal izango du, norberak, nahi duen kantua. Eta horretarako, **abestia aukeratu eta izena emateko bi modu** jarri ditugu: Batetik, [www.zaldibia.org/izankantuz](http://www.zaldibia.org/izankantuz) helbidean sartu eta bertan, abestia eta ordutegia aukeratu ahal izango da; edo bestela, ostiralero Zaldibiako plazan jartzen ari garen mahaian, zalantzak argitu eta gustukoen duzun abestia eta ordutegia hartzeko aukera izango da.

Abestiak **karaoke formatuan** kantatuko dira; beraz, abeslariak letra aurrean izango du uneoro.

Gehienez, hiru pertsonak egon ahal izango dute, batera, oholtzan; eta lotsak uxatzeko nahiz "konpainia" egiteko, laguntza nahi izanez gero, hor izango dira prest gure dinamizatzaileak abeslariekin batera kantuan aritzeko. Zortzi herritar arituko dira lan honetan, beldurrik edo lotsak inor atzeratu ez dezan.

Erronka iritsi bitartean, abestiak entzun eta karaokean trebatu nahi dutenek [www.txantxangorria.eus](http://www.txantxangorria.eus) helbidean aurkituko dituzte abesti eta letra guztiak.

Behin eguna iritsitakoan, aukeratutako ordua baino ordu erdi lehenago egon beharko du abeslariak bertan, eta 15 minutu lehenago ilaran jarri beharko da. Oroigarri gisa, paparrerako ikur bat oparituko zaio oholtzatik igarotzen den orori.

Mundu guztitik jarraitu ahal izango da Izan Kantuz erronka, **zuzenean, Streaming bidez**. Eta 26 ordu horien Interneteko emisioaz gain, parte hartzen duten guztien irudiak hartuko ditugu, eta, ondoren, [www.zaldibia.org](http://www.zaldibia.org) atarian plazaratuko ditugu.



**OFFICIAL WORD RECORD** elkarteak ziurtatuko du munduko errekorra, alegia, 26 orduz, etenik gabe, euskaraz abesten jardun dugula. Eta Euskal Herriko zenbait elkartetako kidek osaturiko batzorde batek ere ziurtatuko du erronkaren garapena.

Gainera, **abeslari gonbidatuak** ere izango ditugula iragarri nahi dugu. Gure kantagintzaren ardatz izan diren eta izango diren abeslariak ere Zaldibian izango ditugu erronka berezi honetan parte hartzen. Egitarauan ikusi ditzakezue noiz etorriko den bakoitza, tartean: Zuriñe Hidalgo, Xabier Saldias, Idoia Uralde eta Julen Iraola, Porrotx, Mikel Markez, Abarlotz, Naroa Gainza, Maider Zabalegi eta Jon Urdangarin besteak beste.

Eskerrak eman nahi dizkiegu, Izan Kantuz erronka ondo atera dadin lanean ari diren guztiei, ekimena diruz lagundu duten lantegiei eta egunean bertan izango diren 26 zozketetarako produktuak eta zerbitzuak eskaini dituzten Zaldibiko taberna, saltoki, enpresa zein pertsoneri.

Ez genuke ekimen eta ideia hau Zaldibian amaitzerik nahi, eta horregatik, Izan Kantuz honen jatorrizko ikurra, Xanti Ormaetxea zaldibitarrek zurez egindakoa, erronkari heltzen dion hurrengo herriaren esku utziko dugu gurea amaitzean.

Gogoratu, Azaroaren 10ean eta 11n... IZAN KANTUZ!!

Zaldibian, 2017ko azaroaren 6an.

**IZAN KANTUZ ekimena**  
[www.zaldibia.org/izankantuz](http://www.zaldibia.org/izankantuz)  
Harremanetarako: 669 179 663  
[izankantuz@gmail.com](mailto:izankantuz@gmail.com)

Ekimena **STREAMING** bidez zabalduko da <http://www.zaldibia.org> atarian youtuberaren bidez.

## IZAN KANTUZ HERRI ERRONKAREN EGITARAUA

**AZAROAK 10 OSTIRALA**  
17:00etan Zaldibiako plazatik kalejiran abiatuko gara txistularien gidaritzapean Herri Antzokira. Bertan IZAN KANTUZ erronkari **hasiera emateko EKITALDIA burutuko dugu.**  
Arratsaldeko **18:00etan IZAN KANTUZ erronkari hasiera** emango zaio.

18:30etatik aurrera **Porrotxen** bixita eta kantuak

18:45ak inguruan *Alaitz eta Maider* taldeko **Maider Zabalegi** abeslaria izango dugu kantari

20:00ak inguruan **Mikel Markez** abeslaria izango dugu kantari

**20:00etatik 21:30etara Ordiziako eta Beasaingo kantu Jirek Zaldibiako kaleak alaituko dituzte.**

23:00etatik aurrera **Abarlotz Olano** abeslari zaldibitarra kantuan.

01:00ak inguruan **Naroa Gaintza** abeslaria kantuan

02:00ak inguruan *Gureran* taldeko **Manex Mendizabal**

**Sukaldea eta taberna irekita egongo dira 26 orduan zehar** eta gosari bereziak eskainiko dira karpan.

**09:00etan Zubi Buru** elkartekoen eskutik txokolatada karpan

11:00ak inguruan **Miren Fernandez** abeslaria

**11:30etatik 13:30etara Plentziako kantu Jirako lagunak alaituko dituzte Zaldibiako kaleak.**

12:00ak aldera *Hesian* Taldeko **Zuriñe Hidalgo** izango dugu kantari

13:00ak aldera Aitziber Garmendia eta Iker Galartza aktoreak izango ditugu kantari

**14:00etan HERRI BAZKARIA** txartelak tabernetan salgai. Helduak 16€ eta haurrak 5€tan.

17:00ak inguruan *Drindots* taldeko **Jon Urdangarin**

**18:00etatik 19:30etara Andoaingo kantu Jirakoak, Zarauzko Montetxio korua eta Lasarteko Xumela Koruko lagunak alaituko dituzte Zaldibiako kaleak.**

19:00ak inguruan *Egan* taldeko **Xabier Saldias, Idoia Uralde eta Julen Iraola**

20:00etan Amaiera EKITALDIA

**AZAROAK 11 LARUNBATA**